

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2010eko urriaren 27an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

23.- ZUBIAUR TAR KEPA KALEKO ESKILARAK KONPONTZEKO OBRAK BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Xedea

Zubiaur tar Kepa kaleko eskilarak konpontzeko obrak behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2010eko irailaren 2an Tokiko Gobernu Batzarrak Zubiaur tar Kepa kaleko eskilarak konpontzeko obren proiektua eta administrazio baldintza zehatzen orria onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Aitatutako kontratazio-prozesura hiru parte-hartzaile aurkeztu dira: Antonio Hidalgo, Etxegintza Lupategi, SL eta Construcciones y Proyectos Pagolar, SL.

Argudioak

Bakarra: 2010eko urriaren 26an emondako txosten teknikoaren arabera, hauxe izan da eskaintza bakoitzak lortutako puntuazioa:

| Eskaintzak | Hobekuntzak (obra gehiketak) 0-35 | Bestelako hobekuntzak 0-15 | Obra egiteko epea (3 hilebete) 0-20 | Obrearen metodologia 0-30 | Guztira |
|----------------------------|---|----------------------------------|---|---------------------------------|----------------|
| Antonio Hidalgo | 6,1 | 0 | 2,3 | 0 | 8,4 |
| Etxegintza Lupategi, SL | 14,6 | 2 | 9,6 | 10 | 36,2 |
| Pagolar, SL | 35 | 15 | 20 | 20 | 90 |

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Zubiaur tar Kepa kaleko eskilarak konpontzeko obra kontratua, behin-behinekoz, PAGOLAR, SL enpreseari esleitzea, 145.210,63 euroan (BEZa barne).

BIGARRENA: Pagolar, SLri jakinarazotea, behin-behineko esleipenaren iragarkia kontratugileen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 15 eguneko epean konpultsau barik daukazan agiriak (halan izatekotan) konpultsau beharko dauzala eta behin betiko bermea jarri beharko dauela, eta, holan egin ezean, behin-behineko esleipena bertan behera geratuko dala.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko azaroaren 2an.

ONETSIA
ALKATEA